



euskararen eguna abenduak 3

Euskararen Nazioarteko Eguna abenduaren 3an ospatzen da, hau da, Xabierko Frantzisko egunean. Data horren jatorria Eusko Ikaskuntza erakundeari estu lotzen zaio.

Lehenengo Euskararen Eguna duela 62 urte baino gehiago ospatu zen, 1949, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan. Ipar Euskal Herrian ez ezik, Parisen, Mexikon, Caracasen, New Yorken eta beste leku batzuetan ere ospatu zen Euskararen Eguna. Geroztik, urtero egin da egunaren ospakizuna Xabierko Frantziskoren egunean beti ere.

1995ean, kanpoko Gizataldeen Lehen Mundu Biltzarrean, Uruguaiako ordezkaritzak eguna berrindartzeko proposamena egin zuen. Diasporako euskaldunek egun handitzat zutena *Euskararen Eguna Ofiziala* izendatzeko eskatu zuten. Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaindiak ontzat eman zuten proposamena eta **abenduaren 3a**, Xabierko Frantzisko eguna, Euskararen Eguna izendatzea erabaki zuten.

Euskararen eguna Bizkaian

Azken urteotan, Bizkaiko udalerri gehienetan makina bat ekintza antolatu dira Euskararen egunari lotuta; hori dela eta, Bizkaiko Foru Aldundiak lurralde mailako ikuspegia eman gura izan dio egunari eta, aurten ere, ekitaldi horiek guztiak josteko asmoz, Euskararen Eguna iragartzeko kartela jarri du Bizkaiko euskara zerbitzu guztien esku eta ekimenon agenda bizkaia.net atarian argitaratuko du.



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



euskararen eguna abenduak 3

Sustatzaileak eta hartzaileak

BFA eta EUDELekin batera, ekimen honen sustatzaile dira Alkarbide bilgunea (Bizkaiko euskara zerbitzuen bilgunea) osatzen duten udaletako euskara zerbitzuak. Hartzaileak, berriz, udalerri horietako biztanleak, 1.000.000 herritar inguru.

Zabalkunde-euskarriak

Kartela: Euskararen egunari lotutako ekintzak iragartzeko, bi kartel eredu prestatu dira, diseinuz antzekoak, bata Euskararen eguna bera iragartzeko eta bestea ekintzen berri emateko.

e-agenda: herritarrek udalerrian bertan zein Bizkaiko beste udalerri batzuetan egingo diren ekintzen berri izateko agenda argitaratu da bizkaia.net atarian.